

ELKARBIZITZA INFERNUA DENEKOA

Egungo gizarteak, higuingarria eta zentzugabea denak, eta hura osatzen duten subjektuek –ia gizaki ez direnek– puztu egiten dituzte bat ez etortzeak, hoztasun emozionala, teorizatutako adeitasun-eza, eguneroko gatazkak, bakardade patologikoa, elkarrekiko gorrotoa eta aiherkunde unibertsala. Gizakien artean badira goraka doazen elkarrekiko bortxa eta etsaigoa, eta horrek gero eta biztanle gehiago darama hondamendi psikikora eta somatikoa; hortaz, artez doaz gaixotasun mentalak izatera, gorputzak endekatzen eta gogoak mindurik izatera; izan ere, inor ez maitatzen eta inork ere ez maitatzen datoz gaitz horiek.

Guzti hori dela-eta, iraultza integralaren programako helburuetako bat hauxe da: egungo gizartea, hau da, elkarbizitzazko infernua eraistea, eta, hala, bidea egitea afektuari, elkarbizitzari eta maitetasunari; izan ere, egun bakarrik dute lekua gorrotoak, elkarrekiko lehiak, bakardadeak eta aiherkondeak.

XVIII. mendeko ilustratuek –batez ere, Adam Smith-ek– sortu zuten “*homo oeconomicus*”, zeina aberastasun materialaz bakarrik asetzen eta asaskatzen den. Formulazio hori –burgesa baita– dago honako proiektu hauen oinarrian: XIX. mendean, sozialak eta langileentzako ziren proiektu “askatzaileak”, zeintzuk indarrean diren, baina akaburantz doazela. Gizakiak beharizan materialak bakarrik al ditu?, baina espiritualik ez? Bada, azken horien artean da berdinekin elkarbizitza egitea, afektua eman eta jasoaz. Horren kontrako jokabidea ez da batere egokia, eta bai ankerra eta munstrokeriazkoa.

Arazoa are xebleagoa da; izan ere, Adam Smith-ek eta ekonomizismoaz aditu ziren handikiek arazo militarrez ziharduten, eta ez gizaki arruntaren existentziako gorabeheraz. Aberastasun material handieneko gizartea zen haien helburua; halatan, Ingalaterrarentzako gerra-flota eskerga bat eratzeko, eta horren bidez planeta osoko nagusigo inperialista lortzeko, eta halaxe jazo zen. Gizarte hartan, aldi berean, beharrezko zen ezen miseria espirituala eta elkarbizitzazkoa nagusi izan zedin, zertarako-eta gizaki otzana –bakartia eta desegituratua– eraikitzen, hau da, mendeko eta esanekoa zena, bai tiranizatzen zuten Estatuaren erakundearen aurrean, bai esplotatzen zuten enpresarioen aurrean.

Gaur egun, gorpuztua da T. Hobbes-en eldarnioetako gizartea; izan ere, jaun hori Estatuaren despotismoaren aldele sutsua baitzen. Honezkero, gizakietako bakoitza “otso” da gainontzeko gizakientzako, eta “denek denek aurka egindako gerla” jasaten dugu, non Estatuak jagon eta kastigatzen baititu giza-azpitiko izakiak, zeintzuk egungo gizartean elkarren artean borrokan eta ezinikusian bizi diren. Izan ere, Estatua, egunez egun, polizialagoa, burokratikoagoa, teknologizatuagoa, militarizatuagoa eta ekonomiaz indartsuagoa baita.

Zenbat eta elkarrekiko begirune txikiagoa, orduan eta Estatu handiagoa. Hortaz, subjektuaren ahultasun eta inpotentzia handiagoa, eta askatasunaren aldeko borroka txikiagoa, libertatea murriztuz doala.

Elkarrekiko etsaigoaren hainbat era daude. Berdinak honelaxe tratatzen dira: errespeturik, kortesiarik, gizatasunik, anaitasunik eta bihotzetiko afekturik gabe, laun hurkoa –beste barik– norberaren egoarentzako baliatzen delarik; areago dena: harrapakintzat hartzen dira, esplotatu eta parasitatzeko. Besteei eraso egiten zaie narrastasunez, hitz garratz eta ezainez, inoren alde txarrak bakarrik jasotzen dituen “egiastasunez”, esamesa hondatzaileez, elkarbizitzarako behar den autokontrolaren aurka egiten duen berezkotasunez, eta berdina harrapaketa eta lapurretako gaitzat hartzen duen makiavelismoaz.

Harremanetarako eta elkarbizitzarako gaitasunak galtzea da egungo gizartearen patologia lazgarrienetako bat. Jada ez dago afektuzko berbetarik, ahazturik da elkarrekin nola bizi, besteei bizimodua hobea egiteko borondatea desagertu da, jada ez dago lagun hurkoa doan laguntzeko guraririk, besteei entzuteko ohitura galdua da, berdinentzako onaren amorearren norbere burua apaltzea ez da onartzen. Guzti hori ezkutatu egiten da iraungitako urbanitate-formulekin, imintzio edo marketineko baliabide diren irrimurriekin, eta zenbait sektorek “maitasun” hitza gehiegi erabiltzearekin. Horretaz gain, gaur egun egintzen bidez euren afektua adierazten duten apurrak mesfidantzaz eta errezeloz hartzen dira; izan ere, uste da hala jokatzeko amarrua dela, nonbaiteko helburu sekretuak edo lortzeko dena.

Halako egoeran, behar besteko seriotasunez ez eze, prosopopeiaz ere aldarrikatu behar da gizakiak beharrezko emozionalak eta afektiboak dituela, zeintzuk ezinbesteko baititu pertsona gisa osatzeko, eta horiek ez baditu asetzen gaixotu egiten da arimaz eta gorpuzteaz, eta erotu ere bai. Bere

buruaz beste ere egin dezake. Eta urte bakoitzean euren buruaz beste egiten duten milakatan gehienek hala jokatzeko dute maitasun-, konpainia- eta erotismo-premia latzak asetu ezin ditzaketelako, eta ez hainbeste txirotasun materialarengatik.

Afekturik gabeko bizimodua ez da gizakiena, ezpada azpibizitza bat da, non pertsona pairamen okerren eta handienaren menpe baita: maitasunik ez izatea eta maitasuna ez onestea.

Guztiz suntsitu dira adiskidetasuna, sinpatia, lagunartekotasuna, laguntasuna, auzotasuna, amultsutasuna, sexua erotismo gisa (hau da, espresio handiago edo txikiagoekin, baina maitasuntzat atzematen dena), maitemintzea, familiako harremanak, elkarrekin egotearen poztasuna, norik bera arte-lan bihurtzea eta berdinentzako halakoxea izatea doan, eginkizun kolektiboak zertzeko gauza izatea, hierarkia bako bizitza asoziatiboa, eta “gu” delakoan sartzen den edozein forma. Aienatu dira begirakuneko sinpatia, norberaren tokitik bertatik elkar ulertzeko prestu izatea, dotoreziaz agertzea, eta kontakizunetarako dohaiak. Ia ez da elkarrekin barre egiteko gaitasunik, ezta une txar eta larrietan batera egoteko gaitasunik ere. Ez dago elkarbizitzarako erritorik, lan komunik, egiazko maitasunezko enkontrurik, eta festarik non elkarrekiko afektua nagusi den eta ez alkohola eta drogak, etab.

Gizaki izatearen funtsezko pertzepzio bat kendu digute, zeinetan bestea lagun legez agertzen den eta ez arerio legez. Horrexegatik gaude hain gaixorik. Horrexegatik gara tristeak iluntasuneraino, aspergarriak gogaikarri izateraino, geurekoiak disfuntzional izateraino, hutsalak eta azalekoak irrigarri izateraino. Gauzez aberats gara (ginen), baina gainontzekoan – espirituzko bizitzari dagokionez– guztiz lander gara. Eta horrek, beste barik, hil egiten gaitu.

Egungo harremanezko basamortuan eta bizikidetzazko infernua ez da besterik hondakina eta errautsa baizen, eta horien artean deslari dabilta izaki bakartiak, gorputzez eta espirituz gero eta endekatuago, eta katigaturik tristuran, egonezinean, larritasunean, antsian, depresioan eta beste zenbait sufrimendu animikotan, hau da, egun “bizitzako dolorea” izendatzen denean, zeina sistemak antidepressiboez tratatzen duen; halakoen kontsumoa hamar urterik behin bikoiztu egiten delarik. Bereziki, emakumeak bihurtarazi dira desesperazioaren aurkako pilulen kontsumitzaile konpulsibo; izan ere, behartu egin dira honako bizitza hau egitera: 1) gizatiarra ez dena, 2)

andreentzako ezelan ere egoki ez dena, hau da, egungo erregimen neopatriarkalekoa.

Gero eta pertsona gehiago ari dira psikikoki alditxartzen edo zorutzen, pertsonen arteko liskarrak areagotu direlako, eta bai harremanetarako jokabideak, jakituria eta gaitasunak galdu direlako ere. Eta horietarik portzentaje bat gizaki disfuntzionalak dira, oreka psikikoa hondaturik dute-eta, afektuzko eta harremanezko beharrizanak hertsatzearen ondorioz (eta horretan da erotismo heterosexuala jazartzea, gero eta inkernu handiagoz). Eta portzentaje horren izaria muntakoa bada, Gizarteak nekez iraungo du, zerren, hainbeste elbarri, desgaitu eta gaixo zaindu eta artatzeko, ez baita izango aski giza baliabide eta aski baliabide material. Eta horixe da Mendebaldearen egungo krisi ekonomikoaren zio sakonetarik bat, ekonomizismoaren maniakoek antzik ere ematen ez diotena.

Bakardadeak izua dakar, eta izuak zentzuna galarazten du. Eta zoratzek –gaur egun legez kronikoa bada– gaixotu egiten du gorputza zein gogamena. Badira gorputzeko gaitz berri batzuk, gero eta hedatuagoak, duela hamarkada batzuk arraro zirenak, eta horren esplikazioa hauxe izan daiteke: egungo diktadura-sistemak naturaz kontrako bizitza ezartzen die herritar xeheei: bakardadea, elkarrekiko gorrotoa eta desakordioa, etab.

Gogamen gaixoak gorputza gaixotu egiten du. Gizakiak, izatez, harremanetarako eta elkarbizitzarako jitea du, baina egungo sistemak inkomunikaziora eta afektibitatea zapuztera kondenatzen du. Eta, batez ere, arazo horren ondorio dira espeziaren endekapen fisikoa eta psikikoa.

Maitatzeko gauza ez den izaki asozial bihurtuaz norbanakoa, anaitasunezko bizitza desegitea iraultza liberalen erdigunean dago, zapuzte horixe da haren programako punturik eta erabakigarriena. Proiektu liberalean bi eragile baino ez dira, Estatu hipertrofiatua (eta bere kumea: kapitalismoa) eta izaki arrunt atomizatua eta isolatua, zeina kanporatua izan baita, bere borondatearen aurka, lehendik ziren elkarbizitzako eta soziabilitateko era guztietatik, berdinen bilkura eta batzarretatik eta auzolaneko sistemetatik, zeintzuk betiere elkarbizitzazko ospakizunei lotuak baitziren. Gizakia bakarrik dago Estatuaren aurrean, eta horrexegatik aurkitzen da sostengurik gabe, oso ahul eta erresistitzeko indarge, eta are erkinago Estatu inbaditzaile, totalitario eta guztiz tiranikoa eraisteko.

Eta guzti hori dela-eta, ekintza politiko, juridiko, ekonomiko, hezitzaile eta propagandazkoen zaparrada bat da iraultza liberala, subjektu herrikoa behin betiko, guztiz eta absolutuki indibidualizatzeko dena. Kontzeju irekia eta autogobernurako eta bizitza politikorako batzarrak –komunalekin batera afektuaren eta elkarbizitzaren funtsa zirenak– baztertu eta ezereztu egin dira. Ondasun komunalak –lurrak eta gaintetikoak– pribatizatu egiten dira, eta, hala, hondatu egiten dira gizarte aurreliberaletako batasunezko eta anaitasunezko bizitzaren –afektiboki gogarakoaren– oinarri ekonomikoak. Bizitza politikorik eta bizitza ekonomiko kolektibistarik bage, zelan gauzatuko dira pertsonen arteko onginahizko, adeitasunezko, kortesiazko eta elkarbizitzazko harremanak, izan ere, haiek hauen aurrebaldintzak dira.

Erregimen partitokratikoak elkarren aurka jartzen ditu pertsonak, bata bestearen aurka jardunaraziz eta Gizartearen gorputzean zatiketa mingarriak sortuz, betiere alderdikeria politikoen ondorioz, zeintzuk ez baitira gauza handirik berez, baina puztu eta antzeztuz gero, zatiketak eta bat ez etortzeak eragiteko eta gorrotoa hedatzeko baliatzen dira. Arrazismoak ere funtzio berdina du, zeren azalaren kolorea dela-eta elkarren aurka jartzen ditu pertsonak, eta egungo espresio berrituetan gero eta kezkarriagoa da. Ildo berekoak dira: fanatismo erlijiosoek sustatutako gorrotoak, belaunaldien arteko gatazkak, eta goikoek maneaturako sexismo politikoa, bere bi formetan: misoginia eta androfobia.

Soldatapeko lana, madarikazio eskerga hori, ez bada errotik kentzen, egungo gizartea ezin da berritu elkarbizitzari, etikari, hausnarketari eta zibismoari dagokienez. Eta horretaz gain, esanekoa izaten eta beldurra izaten ohitzen du, espiritua gorrotoz betetzen du, gatazka unibertsal iraunkorra sortzen du, eta soldatapeko langilea giza kondizioaren funtsezkoenaz gabetzeaz gain, gauza-eza egiten du menpekorik eta menperatzailearik gabeko eta afektuzko harreman horizontaletarako. Gizakiaren arerio txerrenen laguntzarekin, Ongizate Estatuak –estatuaren sostenguekin– “konpondu” eta “bete” egiten du honako hau: elkarren arteko laguntzazko, kooperaziozko eta bizitzazko prozedurekin konpondu behar dena. Azken bide hori baliatuko balitz, afektuzko erak hedatu egingo lirateke, eta ondorioz asetu pertsonen arteko jaiera, atxikimendu eta maitetasunezko beharrianak.

Lehiak ostendu eta lausotu egiten du eragingarritasun ekonomikoaren eragile nabarmen bat, hau da, produkzio-baliabideen hein bereko jabeek ekoizpen-lana lankidetzan burutzea. Lehiak elkarren aurka jartzen ditu

gizakiak, diruaren aldeko irrika eta inkernu hiltzaile eta izugarrienak –gero eta suizidagoak direnak– sustatzen ditu, eta ezinezko egiten du elkarbizitza. Aldi berean, egungo gizarteak guztiz burgesak dira, zeren sasoi bateko langile-klase gehienek mundu ikuskera burgesa – ekonomizismoa, edo arlo ekonomiaren lehentasuna– eurenganatu dute, eta, bestalde, gero eta lehiakorragoak dira. Lehiak sortu eta areagotu egiten du gatazka, soziala eta pertsonen artekoa dena, eta bertan zentzurik gabe eta erruz eralgitzen dira baliabide materialak, giza energia eta bizialdiak.

Ekoi-zpenerako lanean lehiaren ordezt lankidetzaz jarri gabe, ezin da murriztu lan-denbora, eta ez dago baliabide materialei doakienegizakiei bizitza txukuna ematerik eta baliabide naturalen kontsumoa gutxitzerik, ingurumen-hondamendia mugatu edo baztertuaz. Aldaketa hori egiteko, iraultza soziala egin behar da, zehazki, izaera integrala duena, eta horretaz gain, barnetiko iraultza ere egin behar da, hau da, askatasunez zertu behar dena gizaki bakoitzaren bihotzeko zokondoetan.

Elkarrenganako maitetasunak ematen ditu poztasun handienak, eta dena partekatuzetik dator gozamen handiena. Ondasunak izateak, lehiak eta elkarrekiko gorrotoak biziartzen badute burgesia, buruz eta bihotzez burgesen aurkako direnek desbaliu horien ukaziozko baliuak aukeratu behar dituzte.

Herriaren gobernatzaile eta menperatzaile denez, Estatuak existitzeak berak ezartzen du desberdintze-eraz txarrena, zeinak gizakien arteko gorrotoa eta enfrentamenduak eragiten baititu. Honako zatiketa hauek badira jendearen artean: agintari eta menpeko, administratu eta administratzaile, mehatxatzaile (inoiz borrarero) eta mehatxatu, doktrina-emaile eta doktrinatu, ezinezkoa da elkarrekiko afektua, eta ez dago gizartea eraikitzerik, ez behintzat elkarrekiko atxikimendu eta onginali unibertsalak dituenaz.

Guzti hori egia da; izan ere, elkarbizitzazko egungo infernua, zeinetan atsekabeturik eta gizatasuna galdurik gabiltzan, batez ere Estatuak taxututakoa da, eta iraultza liberaletatik jalgitako erakunde zentzugabe eta munstrokeriazko bat besterik ez da. Otto Hintze-ren analisiaren arabera, lehenengo “Estatu liberalaren” forma hartzen du, gero “Guztizko estatuarena” edo, autore horrek berorrek dioenez, “Herriaren bizitza osoan esku-hartzen duen Estatuarena”. Eta horrek argi eta garbi erakusten du Estatuaren despotismorik eta handiena, zeinak, batetik, ezereztu egiten baitu pertsona, eta, bestetik, hartu-eman hierarkiko eta ezberdinekin

kutsatu egiten baitu Gizartearen gorputza, hartarako oinarri direlarik agintea, obediencia, beldurra, herra, gaitzerizkoa eta zehapena; guztirekin ere, ezinezko egiten ditu afektu, erantzukizun, parte-hartze eta amultsutasunezko harremanak.

Bizitza kolektiboaren giltzarritzat elkarrenganako atxikimendua eta laguntza baditu, elkarbizitzan oinarritzen den gizarteak librea eta demokratikoa behar du, eta haren andrazko eta gizonezko orok parte hartu behar du bai delibrioetan, bai legegintzan, bai fiskalizazio zereginetan, bai ardura exekutiboetan. Hori ezin da gauzatu Estatu duen gizarte baten; izan ere, halakoetan askatasuna bakarrik erabil daiteke Estatuaren komenientzien eta estatu-arrazioaren arabera jarduteko eta espresatzeko. Horretaz gain, esan behar da ezen, Estatuak gobernatzen badu gizartea, herritarren gizartea ezin dela autogobernatu, ezin dela izan demokratikoa.

Dogmatismoei eta fanatismoei emanda badago gizarte bat, hau da, teoria akademikoei zein erlijio politikoei zein utopia sozialei, eta halako jokabideak herriari ezartzen badizkiote goikoek, eta horrek herriaren baitan zatiketak eta gatazkak sortzen baditu, halako egoeran dagoen gizartea ez da espazio egokia afektuetarako eta bizitza espiritualerako, elkarbizitzazko infertua baizen ez da. Hortaz, desmuntatu egin behar dira gogamenak manipulatzeko aparatu akademikoa, hezkuntza-sistema –pribatua zein “publikoa”–, eta unibertsitatea. Eta ordena kulturizatzaile bat altxatu behar da, zeina honako hauetan sostengatuko den: kontzientzia-libertatea, herritarrek eurek edukatzea beren burua, eta askatasunez eta burujabetasunez lotzea jakintzari, kulturari, egitari eta ezagutzari.

Harremanatzeak, besteak beste, honako hauek sortzen ditu: komunitatea, elkartasuna, talde eta ekipo bideragarriak, “gutasuna”, etab. Guzti horiek gabe, ia ezin da ezer egin. Egitasmo kolektiboek huts egiten badute; batez ere, bizikidetzaren nolakotasunarengatik izaten da. Batzarretako jardunak izan ohi dira exkakak, tristeak eta latzak, gehienbat egungo gizaki arruntek ez dakitelako elkarrekin bizitzen; izan ere, berekoiak, bakartiak eta jendarterako gauzaezak dira, eta ia ez da gauza espresio kolektiboetan egon eta jarduteko: ez bizitza erotiko-maitasunezkoetan, ez gizartea aldatzekoetan, ez...; gauza jakina baita halako espresioak batasunezko elkartasunean oinarritu ohi direla. Hortaz, egitasmoak egiatan iraultzaile izan daitezten, ezinbesteko aurrebaldintza da –eta ez bakarrik epifenomenoa– norbanakoak bere burua eratu eta moldatzea.

Hala eta guzti ere, aldaketa politiko, egiturazko, ekonomiko eta sozialen bidetik –gainteko ezer barik– irten nahi izatea egungo elkarbizitzako infernutik, oker jokatzera da. Pertsona bereizi, mugadun eta barnebildu legez, norbanakoak borondatea izan behar du bere buruaren askatasuna moldatzeko; hartarako, –erantzukizuna, aukeramena eta burujabetasuna baliatuaz– afektu, elkarbizitza, anaitasun eta maitasunaren alde eginez, guzti horiek helburu pertsonalak direnez.

Maitasuna ez da emozio bat, ez pasio bat, ez egoera animiko bat, ezpada batez ere praktika bat da. Areago dena, ohitura bihurtu behar den praktika da. Gorago aipatu eraldaketa sozialak gauzatu arte itxaron barik ere, besteekiko harremana sublime izatera bideratutako egitasmoa ezarri eta eskatu diezaioke bakoitzak bere buruari; zehazki, norbere pertsonalitatea itxuraldatzea dakarrena; halatan, subjektu asozial izatetik amultsu izatera pasatuaz. Badira adiskidetasun arauak, laguntasuna, kortesia, manera onak, zerbitzurako espiritua, familiritatea, batera egotearen ondoriozko poza, nor bere buruari uko egiten jakitea eta maitasun-ekintzekin zerbitzea; guztiak ere, baliatu daitezkeenak eta baliatu behar direnak. Bakarrik ekintza indibidualen bidez ezin dugu baztertu elkarbizitzako infernuko gizartea; hori hala da, baina hainbat gudu txikitari garaitu dezakegu partez, defentsiban jarri eta atzeraka joanaraziz.

Afektuaren aldeko eta elkarbizitzako infernuaren aurkako gudu beharrezko dira konpromiso pertsonala eta bai praktika pertsonala ere. Politikotasuna ez da egokia.

Baina errealismoz pentsatu eta jokatu behar da, eta onartu egin behar da tratatutako arazoei dagokien konplexutasun eskerga. Sekula ere ez da izango elkarbizitza perfektuko gizarterik, ezta “erdibitasun” bako gizakirik, zeina gaizkiaren eta ongiaren nahasketa bat den. Elkarrekikotasuna beharrezkoa da; beraz, maitasuna emateak maitasuna jasotzea ekarri behar du. Egungo gizarte makur eta moral gabekoan, parasito eta harraparietatik gorde behar da. Izan ere, gorrotoa eta aiherkundera predikatu eta ezartzen dute, eta aurre egin behar zaie sendotasunez, eroapenez eta azartasunez, horrek gatazka larriak badakartza ere. Ezin da onartu maitasuna haurtzaindegiko txepelkeri edo GKEen kurtsilada bihurtzea; izan ere, afektuak berekin behar ditu zerbitzatzea, ahalegintzea, nozitzea, borrokatzea eta azkarra izatea. Guzti horrek esan nahi du ezen maitasun erreala finitua dela, desamodioari lotua dela, eta ez dela perfektua. Eta bere irrealitatea

fantasiaren munduan gauzatzen da, eta errealitatea, ostera, praktika sozialean eta pertsonalean.

Eta guzti horren bidez, berreskuratu dezagun iberiar penintsulako herrien tradizio kolektibista, elkarbizitzarakoa, adiskidetasunezkoa, biltzarretarakoa, komunala, gozatsua eta anaitasunezkoa, zeina egun ia deseginda baitago Estatua eta enpresa kapitalista leku orotara hedatzearen ondorioz.